



## JOSE EBAISTO

**Ignazio K. Nuñez Arizmendi**

Bertsio elektroniko honen jatorria: Gipuzkoako Foru Aldundia:

<http://www.gipuzkoakultura.net/euskera/ediciones/atzo/c73f25/index.html>

*Jose Ebaisto (bakarrizketa)*, Ignazio K. Nuñez Arizmendi. Euskalerrriaren alde, 1915.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/N/NunezEbaisto.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Euskalerrriaren alde'k argitaratua

DONOSTIA'N  
MARTÍN, MENA Y C.ªREN ETXEAN  
Fuenterrabia, 14, beko gelan  
1915

## JOSE EBAISTO BAKARRIZKETA

*Oyala jasotakoan, sartu bedi gure Jose Ebaisto  
laisterka, egiñala guzian, izututa, norbait atzetik  
jarraika balu bezela. Euskaldunen eraz jantzita  
betor, eskuan makilla duala. Oztea (jendea)  
aurrez-aurre ikustean, arritu bedi, ao-zabal geldi-  
tuaz. Motel samar, erdi lotsatuta, baña parre  
antzean, txapela kendu beza poliki-poliki entzu-  
leai begira, ta asi bedi izketan geldi samar, arrita-  
sunak galeraziko balio bezela. Gero bildurra utzi  
ta agurosego itzezin beza.*

Ausen jende dotorea... Je... sus! E... neba! Etzenuten asko pentsatu-  
ko gaur Jose Ebaisto emen ikusterik... e? Ez nik ere emen sartzerik.  
Sartuko ote da beste ori? (*Atera begiratzuz*).

Eta, oraiñ zer egin bear det nik?... Baña au parajee...! Au gutxiyenez  
eguzkiyaren goiko alde da; nik ez det ikusi eguzkiyaren azpiyan onelako  
parajerik.

Eta, emendik nora jua beer det nik oraiñ? Eta, guziok neri begira-  
tu bear aldirazute? (*Jendeari*). Ni baño unore ta patxada obiakiñ zaudete.



Nun ote da...! (*Atera begiratuaz*). Datorrela bai, eta neronek alto eragingo diyot. Lau urteen alkate izana naiz gero ni... Ederki emane... aguazilla alkateeri segika. Eulikakak algaitupa gu ala!

Baña jaunak, jaunak, alare alare nun nagon baneki... A!... so... derepente asmatu det. Gure Josepaiñisik esan oi zigun iñoiz juaten zala trea- to edo toki eder batzuetara, eta seguru oetakoen bat da au. Bai... Bera emen ote da? Josepaiñisi... (*Deardaka*). Ez, emen gari-jorrako txapelik ezdago-ta... Eta auek gauzak; ez dira geo ikusita sinistekoak.

Beste ura nun ote da? Zein nitzala uste ote zuan ark? Lau urteen alkate izana ni ta, zea, emen aguazillak joka.

Baña baño, au baño ederragoa ote da zerua? Eta, au zer da? (*Apuntadore-zuloagatik*). Ause konpesonayo txikiya. Eta, zein da baruun dagoon au? Txepetxan kabiya diruri. Euliyak arrapatzen aldaukazute au emen? A.. ta, ta, ta, ta... Badakit zein izango dan; aguazillaren igesi etorri eta ementxen ezkatatu danen bat... Nun ote da bera? (*Aguazillagatik*). Ara, ezdit bildurrik ematen baño, ara, ikaratu egiten nau. Zera, aiskiria: (*apuntadoreari*) etortzen bada egin neretzat ere toki piska bat, e?

Zuek jakin naiko dezute onezkero nundik eta nola sartu ote naizan ni onera, e? Begira, kontatuko dizutet neri gaur gertatutako guztiya, baño... nik dana dan bezela esango det gero.

Orraba, gure etxekua naiz ni, Beizamakoa, Santa Ageda aizkolaria- ren errikoa; lau urteen alkate izana; zortzi arrua pisatzen ditut, eta amar jasotzeko iñoren berrik ez det, eta (*arrosko*) mundu ontan iñoren bildurrik ere ez. (*Atera begirabeza bildurrez*).

Orraba, noiz bait ere etorri beer genuun ba ta gaur etorri naiz gure alaba Josepaiñasi ori ikustera... eta ikusi gabe joan beer. Beste orrek ikus- ten banau... (*Aldamenetara begira*). Abisatu ziran ezikan, jun-etorriya, baz- kariya, eta gañera bost duroko bat izango zuala neretzat.

Azpeitiñi ere eginkizun txiki bat banun, iskritura zar bat inpotekan pasatzeko, eta iritxi naiz amarrak aldean Arruako eztaziyoa. Galdetu diyot keperi:

—Oyuste, kepe, kuantu bale un tren?

Eta erantzun dit:

—Un tren? Mucho diñero, amio.

Eta nik esan diot berriz:

—Mucho diñero? Oñez juango nauk orduun.

Aizkeneen iru pestan eman dit jira y bueltako billetia. Sartu naiz teneen eta luak artu nau, ta gogor gero. Nunbait iritxi gera ba Donostira, ta ni lotan negoon. Etorri zait bat eta esnatu nau.

—Buen biraje, amio —esan dit.

Eta nik:

—Emos allegao Donostia?

Ta berak:

—Ase treinta minutos.

—Treinta minutos ase? A ze... lua egin deten... ederraek bertsua.

Galdetu diyot:

—Saes donde est Josepaiñisi?

Eta beste txikirazalle alako batek, etorri eta esan dit:

—Kaiso primo... Zure aita ta nere ama ziran aita ta ama.

—Korriente, ez da gaizki esana —esan diyot.

Txiki erdi bana eran beer degula, ta sartu gera traenan; ardo pollita zegoon, eta nere lagun orrek ezagun zuan bakallau prejitubak baño ega- rri geyago zeukala. Pagatzerakoan, bota det amar sentimokua, esanaz:

—Ara nik amaana; pagatu zuk aitaana.

Nik gonbiratu detala, eta pagatzeko guztiya.

—Nik? A gizajua! Lau urteen alkate izana ez banaiz ba ni?

Asarretu da ura, ta ni batere ez.

—Begira —esan diyot— gure bikayo sarrak esaten du besteren gau- zetan ez sartzeko, ta ni nereekiñ ondo nago. Gañera, sartu ezkeru (*edanaz bezela*) atera ere egin beer da, eta atera zazu (*txanpona atereaz bezela*).

Ta nik nundik atera beer ote det beste ori etortzen bada? (*aldamene- tara begiratuaz*).

Ba, onetan, alde egiñ det eta Josepaiñisiñ señaik nituan paper punta ateratzeko buruko txapelai kolpe egin diyot, eta papera palta, papera ageri ez. Kejatu naiz, baño alperrik. Dana dala, nere arteen «gosaldudezaan», eta ala, lukaika jan det, baño bi muturekoa; bai, lukaika bat, baño bi lukai- ka mutur. Bai gerore ordea muturreko ederra; bost erreal t'erdi. Neoni naiko lukaika.

Andik atera eta ibilli naiz jo ta tira bueltaka, eta iñork Josepainisin arrastorik ez. Baña, Jesus milla biar!, ogei urte ni orain urrena izan nitzala Donostin, eta oik txispiri berrik asmatu dituzte. Jesus! E... neba! Kaletatik trenak, alajaña, kanpaia juaz tximista dariyotela, ta beste suzko kotxe eo antonio mobil eo anton borobill dalako oitakuak ere bai. Baña nik Josepaiñisi palta eta iñork arrastorik ematen ez. Aguazill bateri galde- tu diyot:

—Donde le bibe Josepaiñasi?

Ta berak:

—Ke kalle bibe?



—Orisen jakiñ nai diapa nik e.

Baña paper ura... (*billaka*) jaunak, jaunka... au ez da inkisizioa?... eta gutxi gora bera asmatuko nuke nola jartzen zuan... Ara: «Plaza Don Pastor, lumero beintikatortze, segundo abiso». Zer, gutxi al da lau urteen alkate izandakuentzat?

Aizkenen ba, oso etsi ta zer egin ez nikanean, mantal zuridun igel-tsero apaiñ moduko batek esan dit:

—Lagun zarra, ez al dezu ezer artu nai?

—Bai, eman baño artu nayago —erantzun diot.

Barrura sartzeko. Europako kapia dal... Ene, ura gauza! Azpeitiñ diala kapeterik? Esan e eindepa: emen, emen dira kapeterik. Orraba — esan diyot—aitzera aundiya nuen. Au da beaz Europa? Galdetu diyot ari gure Josepaiñisi nun bizi dan, eta aretxek esan dit, andik irugarrengo ateen, bigarrengo bizitzan bizi dala. Segituan, grasirosa eran, pagatu, eta atera naiz; iritxi naiz ark esandako tokira, jo det atia makillaz, da

—Quien? —egiten zuten barrundik. (*Emakumien boza irudituz*).

—Neska, iriki eian aguro, neu naun da —esan diyot.

Jo det berriz ere, eta asi dira barruun:

—Ladron, ladron... sakurra, sakurra...

Oneta aguazilla eskallera gora «alto, alto» egiñez. Eldu dit besotatik, eta nik ere bai, eta biyok eskallera pera bueltaka eta zillipurdika. Azpiyan artu det eta, ri raul! libratu, ta ekiñ diyot laisterka. Onetan, beste aguazilla neuregana; bultza diyot ari ere eta segi nik aurrera salto biziyen, eta bera atzetik... Nun ote da?... Milla demoniñua!... Au tratuba, sentimo baten kulparik gabe. Eta gañera lau urteen alkate izanda. Nere itxuan sartu naiz emen, eta ez dakit tornurik eman gabe nola gelditu naizen ere.

Eta orain, nundik atera beer det nik? Orra Jose Ebaistoren parade-rua. Orain zer egin beer dit? Josepaiñisi ikusi gabe berriz etxera joan? Eta agindutako bazkaria, ta bost duroak? Eta gañera... (*bat batean isilduz*). Norbait dabill or barruan. Aguazilla izango da neri segika... (*Sartu dan atea- ren giltza zulotik begiratuaz*). Bera da, bera. Nundik joango naiz ni igesi? (*Agertoki edo eszenariyuan jiraka*). Guziyak itxita... leyua bakarrik zabalik... (*leyotik begira*). Tokitan zeok lurra...! Baaña... ez det erremediorik... Gero-gerokuak eta goazen buruz bera.

Lagun nazazu, Kizkitzako birjiña maitea... (*Makilla jaurti beza kalera; gero txapela, gero blusa. Aitaren egin ondoren, jaurti beza bere burua leyotik. Au guztiya oso bizkor*).

(*Aguazilla sartu bedi egiñ aletan, Jose Ebaisto erortzen ikusteko eraz. Laisterka bijua leyora, ta aguazilla an azaltzean. Jose Ebaistok esango du kaletik?*).

Emen niok bai; ez diat bururik ausi. Aufa! Ez nauk arrapatuko... Ator, ato...

(*Aguazilla bijua, sartu dan atetik, al duan laiste- rrena, pauso andiyak emanaz, esku batez txape- lari eutsiaz ta beste eskuaz Jose Ebaistori ederak enango dizkiola adirazi*).